

NOLA SORTU TESTU ELEBIDUNAK ITZULPENETARA JO GABE

INFORMAZIO OROKORRA

DATAK	Martxoak 1,8,15	IKASGELA/ TOKIA	A3 gela, IVAP Rekalde Zumarkalea, 18 Bilbo
IRAUPENA	12 ordu	ORDUTEGIA	09:00-13:00
MATRIKULA EPEA	Otsailaren 15era arte	ONIRITZI EPEA	Otsailaren 22ra arte
IKASLE KOPURUA	15 gehienez ere	HARTZAILEAK	EAEko Herri Administrazioetako langileak. Ikastaroan parte hartzeko, ezinbestekoa da gutxienez 2. HE gainditua izatea eta euskaraz aritzeko ohitura izatea.
IRAKASLEA	Edorta España Ocio	MATERIALA	Ariketak egiteko, fotokopiak banatuko dira
DISEINUA	Edorta España Ocio	AZPIEGITURA	Ordenagailua eta arbela

ZER LORTU NAHI DA

**HELBURU
OROKORRAK**

Testu elebidunak sortzeko teknika lantzea.

**HELBURU
ZEHAZKAK**

- Testu elebidunak sortzean kontuan hartu beharreko hainbat irizpide ezagutu, landu eta praktikan jartzea.
- Testu laburrak landuko dira.
- Eta, zeharka, administrazio-testuak idazteko gaur egun planteatzen diren bide berriak ezagutarazi eta praktikatzeko.

GAITASUNAK

Ikastaroan parte hartzen dutenek testu elebidunak idazteko hainbat hizkuntza-baliabide eskuratuko dituzte.

NOLA SORTU TESTU ELEBIDUNAK ITZULPENETARA JO GABE

PROGRAMA ETA EBALUAKETA

METODOLOGIA

Ikastaroa guztiz praktikoa izango da. Hala ere, azalpen teoriko arinak ere eskainiko dira, bai eta hainbat orientabide eta irizpide aplikagarri ere.

PROGRAMA

Azalpen teoriko arinak eman ondoren, sei testu-mota landuko dugu: gutunak, ofizioak, iragarkiak, bandoak, erabaki errazak eta inprimakiak. Ariketa asko egingo ditugu.

EBALUAKETA

Berariazko ebaluazio-saiorik egingo ez bada ere, ebaluazio jarraia erabiliko dugu aprobetxamendua baloratzeko, hau da, kontuan hartuko da ikasle bakoitza noraino jabetu den teknikaz.

**IKASTAROAREN
BALORAZIOA**

- Ikasleen gogobetetze-inkesta
- Irakaslearen balorazio-inkesta

**ZIURTAGIRIA:
APROBETXAMENDUA**

% 80ko bertaratzea, eta eskoletan proposatzen diren ariketak egin izana.

145 €

PREZIOA

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena.
EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zk.

OHARRA

Ikastaro hau modu egokian bideratu ahal izateko, lanean sarritan erabiltzen duzuen idazkiren bat bidaltzeko eskatzen dizuegu, ikastaroa hasi baino pare bat aste lehenago ikasivap@ivap.eus helbidera.